

# SAGAR JOTZALLIAK

Sagarrak biltsu daude  
gure tolarian:  
guzik gera echian  
sagarjotzalliak:  
mutiko t'emakume,  
gizasemiak.

Lanaren bildur gabe  
jotze berriyetan,  
jardunik kantetan  
eztegu nekerik,  
sagar-pilla guziyak  
chetu besterik.

Chetu-ta gero berria  
ardatzak igitu:  
gure lanak ditu  
kemenak iruntzi:  
euskaldun indartsuak  
ajola guchi!

Ekarriala beti  
orgetan sagarra,  
or dabil indarra  
zazpi gabi aundiz,  
t'alkarren leyan arin  
guziyok gabiltz.

Jariyoka dijoa  
patzarestituba;  
t'azpiyan putzuba  
sortu da kupelan:  
argatik egin degu  
guk ainbeste lan.

Orain sagardo-zale  
guziyok etorri:  
mustiyotzar gorri  
garbi daukazute,  
bañan urez nastuba  
danik ez uste.

Sagardo salgai dago,  
chosperrri ederra:  
bakallu-piperra  
ezta jan motela  
sagardua edateko  
ura bezela.

DONOSTIARRA